



TXIROEN BIZIMODUA IKUSTEKO BIDEA

Alegiako 'Udazkenean kultura'-ren baitan, heldu den asteartean 'Ipar Potosirekin bat' proiektzioa izango da »4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-11-01

VIURTEA 1.548.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñigo Murua, Jose Antonio Suso, Ricardo Remiro eta Javier Eceiza atzoko agerraldian. HITZA

IDIAZABAL GAZTA BIRRINDUZ GOZO-GOZO

LIZARTZA Casa Ezeizak atzo birrindu zuen Ordiziako XXXV. Ardi Latxaren Gazta Lehiaketan erosi zuen gazta erdia, gazta-tartak egiteko

Harri festa izango da ekitaldirik deigarriena Kultur Hamabostaldiaren baitan

AMEZKETA Azaroaren 9an izango da; honekin batera, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, bazkariak, haur ekitaldiak,... antolatu dituzte



Kubako Exaudi abesbatzaren saioa, Santa Klaran. E. EZEIZA

Helduenak pasata haurren saioak izango dira gaur entzungai

TOLOSA Goizean haurren sei abesbatza izango dira; arratsaldean, berriz, helduen hiru 2-3

Okupazioaren Aldeko Eguna antolatu du eskualdeko Gazte Asanbladak

IBARRA Okupazioaren Aldeko Mugimenduentzat izango da bildutako dirua 6

Energia kontsumoa %1 jaisteko «konpromiso irmoa» hartu du Udalak

LEITZA Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasun Planarekin bat egin du 7



Udazkenaren begiak 2008

Basoan ikusitako ondoak, bildutakoak... Atera argazkia eta bidali webgunea@hitza.info helbidera, zure izena eta herria zehaztuz.

HITZAn argitaratzeaz gain, argazkiak bidaltzen dituzten guztien artean asteburu bateko egonaldia zozkatuko da nekazal etxe batean.



Argazkiak bidaltzeko epea: abenduaren 3a.

o'baba

- Okindegia
- Gosari bereziak
- Infusiotan aukera handia
- Pintxoak

Orduetgia:
Asteleneetik ostiralera
7:30 - 20:00
Larunbata eta igandea
7:30 - 14:00

berriro zuekin

Kale Nagusia 45 • Villabona • 943 247 469

Ahotsik gazteenak entzuteko garaia da

Kultura» Haurren sei abesbatza entzuteko aukera izango da gaur goizean Leidorren; arratsaldean berriz, helduen beste hiru.

ESTI EZEIZA

Haur abesbatzen doinuekin emango diote hasiera gaurko egunari. Sei abesbatza izango dira lehia atal honetan, eta horien artean, Euskal Herriko batizango da. Leioako Kantika Korala hain zuzen ere. Emanaldiak Leidor antzokian izango dira, 11:00etan.

Eguerdiko atsedendialdiaren ostean, 16:00etan hasiko dira abesten, ahots nahasien atalean, beste hiru abesbatza kantuan. Hauek, lehendabizi polifonia saileko kantutak abestuko dituzte, eta ondoren, folklorekoak. Hemen ere izango dira euskal ordezkariak, Donostiako Kup abesbatzakoak hain zuzen ere.

Motyl Jumper

■ **Jatorria.** Sumperk (Txekia).
■ **Zuzendaria.** Tomas Motyl & Helena Stojanikova.

■ **Haur abesbatza.** 40 neska.
■ **Historia.** Alois Motylek eratu zuen 1962an, bere zuzendaritza-pean koruak garapen garrantzitsu eskatzeko duela. Koruaren artea nabaritzen da nazio zein nazioarte mailako lehiaketetan lortutako sari ugarietan. Errepertorioan, antzinako musikatik gaur egungo-ara arteko lanak sartzen dira.

Cor Amics de la Unio

■ **Jatorria.** Granollers (Herrialde Katalanak).
■ **Zuzendaria.** Josep Vila Jover.
■ **Haur abesbatza.** 32 neska eta 7 mutil.
■ **Historia.** Granollerseko Amics de la Unio Abesbatza Elkartearen

barnean 1996an sortutako musika eskolaren barnean jaiotzen. Erakundeak 1877tik abesbatza musikaren hedapen eta sustapenera eskainia dago. Garai eta estilo desberdinetako lanak interpretatzen ditu eta Kataluniako musika herrikoari eta egileei arreta eskainiz.

Leioa Kantika Korala

■ **Jatorria.** Leioa (Euskal Herria).
■ **Zuzendaria.** Basilio Astulez.
■ **Haur abesbatza.** 32 neska eta 5 mutil.
■ **Historia.** Leioa Kantika Korala Basilio Astulez bere zuzendariak sortu zuen, 2001ean Leioako Udalerri Kontserbatorioaren babesarekin. Abesbatza egun abesbatza panoraman erreferente bat da bai bere programaketa ausartengatik baita bere eszenaratzeko zainduagatik.

Vdochdovenije

■ **Jatorria.** Mosku (Errusia).
■ **Zuzendaria.** Olga Skovortsova.
■ **Haur abesbatza.** 34 neska eta 6 mutil.
■ **Historia.** Moskuko 106. haur abesbatzen eskolako da eta bere herrialdean dauden haur abesbatza errepertorioaren erreferente bat. Koruaren errepertorioan errusiar musika nahiz musika unibertsalak dago, Errenazimendutik hasi eta gure egunetara iristen dira, herrialde desberdinetako folklorea barne.

Prague Philharmonic Children's Choir

■ **Jatorria.** Praga (Txekia).
■ **Zuzendaria.** Jiri Chvala.
■ **Haur abesbatza.** 55 neska.

■ **Historia.** Jan Kühn bere sortzailearen izenez ezagutzen da, 1932an eratu zuen Txekiako abesbatza ospetsuenetakoa da, ospea du, ez Europan bakarrik, baita Japon, Korea, AEB, Kanada, Singapur eta Malasian ere.

Ensemble Vocal Hamburg

■ **Jatorria.** Hamburgo (Alemania).
■ **Zuzendaria.** Cornelius Trantow.
■ **Ahots nahasiak.** 18 emakume eta 17 gizon.
■ **Historia.** 1994an eratu, 35 abeslariz osatuta dago, alde bategatik a capella koru literatura guztia abesteko gai den soinu aberats bat bermatzen du. Errepertorioan, abesbatza musikaren garai guztiak hartzen dituzte, antzinako musikatik Ahots Jazzeraino.

Kup taldea

■ **Jatorria.** Donostia (Euskal Herria).
■ **Zuzendaria.** Gabriel Baites.
■ **Haur abesbatza.** 16 emakume eta 14 gizon.
■ **Historia.** Musika maite duen gazte talde batek sortu zuen. 2003ko udalerrian hasi zen, musika gozatu eta, aldi berean, ahalik eta kaiterik handieneko musika eskaintzeko. Partaideak, gazteak izan arren, abesbatzen munduan esperientzia handikoak dira.

Kamer Koris

■ **Jatorria.** Rīga (Letonia).
■ **Zuzendaria.** Maris Sirmāis.
■ **Haur abesbatza.** 22 emakume eta 22 gizon.
■ **Historia.** 1990ean sortu zuen bere zuzendariak, Fisika eta Matematika espezializatutako Rigako 1. Estatu Eskolako gazte abesbatza gisa. Egun, nazioarteko 70 abeslari daude taldean.

Zine mutua eta abesbatzak uztartuz

Musika» Mikrokosmos frantziarren ikusizun berezia gozatzeko aukera izango da gaur 20:00etatik aurrera, Leidorren.

ERREDAKZIOA

Lehiaketatik at, aurtengoan emaldi berezi bat izango da gaur iluntzean. 20:00etatik aurrera, Leidor antzokian, Mikrokosmos, frantziarren emanaldia ikusteko aukera izango da.

Gaurko emanaldian, *Ombres vives* kontzertuaren eta ikuskizunaren arteko muga ikustezinean kokatzen da, herentzia gisa zinema mutua laguntzen zuen pianistaren irudia hartuz. Balada zinematografiko honek natura zabaleko irudiak kondentsatzen ditu (luzemtraiak, publikitateak, film esperimentalak eta bideo-sormenak) eta lokartutako ondare zinematografikoko mugak berriro diseinatzen ditu. Baina irudi hauek ez dute hizki, ingurune soinu dueneko bihotzean bat-batean gertatutakoak,

bera ere, gorra. Pantaila azpian, argi-itzal gozo batean murgilduta, abesbatzak bere ahotsak uzten dizkie silueta isilei.

Leon Tolstoi-ren esanetan, «betidanik abesbatza artea zinema eta bideoa, argiztatutako eszenografia edo arestiko hip-hop bezalako beste esparru artistikoekin erlazionatu da». Baina abesbatzaren zuzendaketa, leku berriak aurkitzea eta esperientzia berriak garatzea zaila da, eta are zailagoa Arteen arteko bide berri hauek esperimentatzeko prest dagoen entzuteko berri bat konkistatzeko.

Zinema beti izan da interprete, abesbatza zuzendari eta artista gire Tolstoiaren laneko eragin iturri bat. Martin Scorsese, Jerry Lewis eta Stanley Kubrick bezalako zinegileek bere sentikortasuna elikatuta eta pausok gidatu dituzte. Tolstoik agertu bezala, «inoiz ez dut ahozko Orson Wellesen Gai-tzaren egaria irekitzen duen plano-sekuentzia, eta nola eszena antologiko honek niregan legato harrerkeor eta emankor bat modelatzeko nire erasortu duen».



Mikrokosmos taldekoak Tolosan izango dira gaur iluntzean. HITZA

Aukera aukerako sonoritateak



» Iritzia

Miguel Zeberio
Koru zuzendaria

Hasieran bagabiltza ere, azken urteen ildo jarraituz, plazerrez baiezatu dugun oraingoan ere gure belarrik ez dutela atsedunik izango. Bata bestearen atzetik eskaintzen zaigunak, mokofinena eta aditu gogaikarriena asetzeko maila baitakarki aurten-

go ekitaldiak ere. Beraz ondoren idatziko ditudan iruzkinak harritza izango bere nehurri gorai pagarran.

Antzokiaren transitu eta hallan, atsedan eta sartu-ateretan entzuten diren elkarriketei adi egoteak ba du xarmarik. Urteen poderioz, jendeak ba ditu epai edo juzkuak botatzeko arrazoi zehatzak bai eta gusto zehatzak ere. Jatorri desberdinetako koruak entzun ahala, urtero lez, berehala sortzen da sonoritate diferenteei buruzko eztaba; zenbaitzuk, eredu jakin edo mugatu bategatik at dagoen oron buruz, ez dute estimaziorik azaltzen, besteok berriz aberastastu seinaleztatzen duten gure ordea.

Ostegunekoan, bigarren saioan ahalegia, britaniarregandik espero baino zehatztasun gutxigoko emaitza jaso nuen. Beharbada, zuzendariaren goruntz jasotako esku ez zieten kantariei gehiegia esatu edo, beraz feeling gutxi!

Taiwango soinu tresnaren kristalezko fintasunak, gorutz egin arazi zion beren musika herrikoian interpretazioan. Esku eta hankaz eginiko perkusioen perfektutasunak kifikid gintuzten eta kubatar El Guayaboso obran eta euskal behartuan ere ez ziren bategi makal aritu.

Asko poztu ninduen Soma Szabó lagun zaharra berriro jendaturaren ikusteak. Jakinduria eta

maisutasuna, tarteka azaltzen diren arazoak konpontzeko, tresna eroso bezela erabiltzen ditu. Egitarauan, perlaxo dizdiratsua ere aukeratzen iaioa dugu: Z Kodalyren Miserere a. Ez ditu ba alferrik makina bat buelta egin Hungaririk hona; haseran, Zoltán Kodály musika eskolako ikasle zelarik, aikuek ez zieten kantariei gehiegia esatu edo, beraz feeling gutxi!

egitekoaren fardeltxoan utzi zuen arrastorik; galde diazaiotela bestela Ainhoa Artetari zenbat horrelako musika landu zuen bere aitaren zuzendaritzapean.

Ostiralez, ahots taldeetan, aniztasuna izan zen nagusi arratsaldetakoan. Aipatzekoak bederen; berriro Hungariako Cantemus. Hiru adjektibo, hiru egoeretarako: erahierari ahots taldeko buru. Jarrabizala luzarok! Hungariar koru tradizioa izango da ziurraski lehiaketaren honen egunsentian, europara irikitako lehiotik agertu zen lehena; 1974 urte inguruan. Ostiraleko beren folklorerako askatasunak, eritimo alegera eta karmilatsua askatzeko elegantziak, Leidor zahararren usia eta butak berde igatzen garaitara eraman ninduten. Musikaren iturburu honek ere Euskal Herriko koruen

New York eko Antiochi; oso orekatua. Gregorianoan ere bizia, harri-bitxi jositako egitaraua, oroz gainetik intimoa. Eta bukatzeko Adur talde europarra; kantuan aritzen zutako gozatea helburu duten gaitte ausartak, gero oparok desio diet kantari zein zuzendaria lanetan.

Bihar arte!



Amerikar Estatu Batuetako The Antioch Chamber Ensemble abesbatza, Santa Klara elizan. E. EZEIZA



Habanatik etorri dira Exaudi abesbatzakoak; lehen ere Tolosan izanak dira. E. EZEIZA

«Haurren errepertorio korala eguneratu beharra dago beraien lengoaiara»

BASILIO ASTULEZA ▶ Leioako Kantika Koraleko zuzendaria

Musika » Gaur, haurren abesbatzen atalean lehiatuko dira Bizkaitik datozen 37 abeslari gaztetxo hauek.

E. EZEIZA

Haur abesbatzen atalean lehiatuko dira gaur Leioako Kantika Koralekoak. Zuzendari lanak egiten ariko da Basilio Astulez.

Ezustekoa izan da zuentzat Tolosako lehiaketan parte hartzearena.

Azken orduko gauza bat izan da. Lehiatzera etorri behar zuten sei haur abesbatzetatik bi atzera bota



HITZA

ziren eta orduan, guri deitu ziguten. Orain dela hilabete eta erdi esan ziguten, eta zalantzarik gabe baiezkua eman genuen. Umiltasunez eta errespetuz gatoz, baina aldi berean, ilusio handiarekin.

Zein da lehiaketarako prestatu duzun egitaraua?

Udan Goritzeko txapelketan izan ginen eta hara joateko prestatu genuen egitaraua aurkeztuko dugu Tolosan. Ez da berdina izango, antzeko emanaldia eskainiko dugu. Koruaren estilora asko inguratzen den errepertorioa da hau. Bestalde, hain ezagunak ez diren lanak ere agertuko ditugu lehiaketan. Horren adibide da, Javi Bustoren *Euskal jokoak*.

Erraza al da gaztetxoekin lan egitea?

Bai eta ez. Plazer handia da niretzat lan hau burutztea, eta baita biharko aukera eskaintzea ere. Baina bestetik, lan handia eta denbora asko eskatzen du horrelako proiektu batek. Horregatik baietz eta ezetz diot.

Adituek diote, gaztetxoak abesbatzen mundura hurbiltzea gero eta zailagoa dela. Zuk ere hori uste al duzu?

Oro har, baieztapen horrekin bat egiten dut. Baina era berean, gure lana da kontrakoa erakustea eta sustatzea. Gure asmoa da, obra berriak sortuz, abesbatzen mundu tradizionalera hurbiltzea gaztetxoak. Eguneratu beharra dago haurren errepertorio korala, eta beraien inguruko lengoaiak erabilti.

Gaurkoan, zein da zuen asmoa? Lehenik eta behin, gure lana ahalik eta politen erakustea. Bestetik, politikaz gure buruarekin eta egiten dugunarekin.

«Tolosara gonbidatu izana bera sari bat da, baina orain maila eman beharra dago»

AITOR IMAZ ▶ Kup abesbatzako kidea

Musika » Polifonia eta folklore atalean lehiatuko da Gipuzkoako abesbatza gaztea; tartean izango dira hiru tolosar ere.

E. EZEIZA

Polifonia eta folklore atalean lehiatuko dira gaur Gipuzkoako Kup abesbatza. Leidorreko eszenatoki gainean izango dira hiru tolosar: Aitor Imaz, Imanol Aramendi eta Nejc Rudel.

Abesbatza gaztea zarete, baina esperientzia handikoak.

30 urteren bueltan dauzkagu



HITZA

gehienok. Talde askotan ibili gara gehienak eta horrela ezagutu gara, batean eta bestean abestuz.

Nola definituko zenukete zuen errepertorioa?

Denetik egiten dugu, antzinako musikatik hasi, eta erromantikoa nahiz garaikidera ailegatuz.

Lehendabiziko aldiz ariko zarete Tolosan, etxean izateak errespetu handiagoa ematen al du?

Bai, euskal taldeei erreparatu handiagoa ematen digu etxean aritzeak. Azken batean, hona, atzerritik datozen abesbatzak kalitate handikoak dira, eta hauekin batera abesteak errespetua ematen du. Guretzat gonbitea bera sari bat da.

Baina gero maila eman beharra dago.

Zeintzuk dira lehiaketa honetarako dituzuen helburuak?

Gure xedea da, Leidorren igaroko ditugun 40 minutu horiek gozatzeta. Azken batean, egin beharreko lana egin dugu. Ahal den eta lanik onena egin nahi dugu.

Orain arteko emanaldiei dagokionean, zer nolako maila ari zara ikusten?

Abesbatza bakoitza alde batetik dator, eta eskola ezberdinak dira. Bakoitzaren gustuen araberakoa da dena. Baina badakigu, hona datozen abesbatzek maila altua dutela.

Helduen atalean, iaz ez zen abesbatza euskaldunik izan. Aurten berriz zuek bakarrik. Zergatik da hori?

Lehen aipatu bezala, Tolosara etortzeko asko pentsatu beharra dago. Lan handia egin beharra baitago aurretik, maila ona erakusteko bertan.



Alegiako azokan jostailuak, arropa, cd-ak eta liburuak utz daitezke. Irudian, Villabonako Bigarren Eskuko Azoka. E. EZEIZA

Astearteko Ipar Potosiri buruzko proiektzioa, txiroen bizimodua ikusteko bidea

Alegia » 'Udazkenean Kultura'-ren baitangoa da eta hilaren 23ko Bigarren Eskuko elkartasun Azokarekin dago lotuta.

ERREDAKZIOA

Alegian *Udazkenean Kultura* kultur jardunaldiak antolatu dituzte eta orain Ipar Potosiri helduko diote, hau da, Boliviako lurralderik behartsuenari. Lurralde txiro honetaz gehiago jakiteko *Ipar Potosirekin bat* proiektzioa izango da asteartean Kultur Etxean, 19:30ean. Proiektzio hau Proclade Garapenerako Gobernuaz Kanpoko Erakundeak bideratu du, eta helburu nagusia lurralde txiro honetaz gehiago jakitea da, bertako oinarritzko beharrak ikusiz. Horretaz gain, proiektuaren berri jasotzeko aukera izango da.

Astearteko proiektzioarekin lotuta, hilaren 23an Alegian Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute eta bertan bildutako diru guztia Ipar Potosiko nekazal eskola batera bidaltzeko izango da. Barnetegia hau Andeetan dago, Caripuyo izeneko lurraldean, eta neska-mutil indigenak ibiltzen dira bertan.



Astearteko proiektzioan Caripuyo herriaz ere hitz egingo da. HITZA

Han 48 urte urteko bizi-itxaropena dute eta familia gehienak txiroak, pobreak dira. Umeek eskolara joateko egin behar duten bidea oso luzea da (4 ordu baino gehiago egunean). Nekazal eskola honek (barnetegia) haurren eskolaratzea bermatzeko helburua du, «hezuntza kalitatea hobetuz bakarrik lor daitekeelako bizimodua hobetzea».

Eskola honi laguntza, erraz

Hilaren 23an antolatu duten Bigarren Eskuko Azokan herritarrek Kultur Etxean hilaren 10era arte utz dezaketen arropa, jostailu, liburu eta diskoak izango dira eros-

gai eta salgai. Hauak prezio sinboliko bat izango dute. Azoka hau 11:00etan izango da eta, hasiera batean behintzat, plazan.

Bildutako dirua eskolan behar duten materiala erosteko erabiliko dute. Caripuyoko txikien partetik «aldez aurretik eskerrik asko materiala utzi dutenei eta erosleei!».

«Txukun dauden gauzak»

Kultur Batzordeak, materiala utzi nahi duen herritarri ohar bat luzatu nahi izan dio: kontuan izan behar da arropa eta materiala «herrian bertan saltzeko dela eta erabili daitezkeen eta txukun dauden gauzak izatea eskatzen dugu».



Gaztain-jatea egingo dute afaltzeko orduan: urtero egiten ohi dute. HITZA

«Udazkenean berotasuna barruan» izateko ekitaldiak

Bedaio » Gaur Artubin mus txapelketa azkarra izango da eta ondoren antzerkia; bukatzeko Artubi elkarteak gaztain jatea antolatu du.

ERREDAKZIOA

Udazkenaren erdi-erdian eta azken egun hauetako eguraldi hezea ikusita, «neguaren atarian gaudela adierazten digu». Horregatik, Bedaion, «barru giroan, giro epelean biltzeko plana egin dugu» gaurko. Hain zuzen ere, Artubi elkarteak antolatua izango da eta honen inguruan lortuko dute giro hau.

15:30ean mus txapelketa azkarra antolatu dute eta parte hartuko duten bikoteak hurbiltzen joan daitezke orduan. Izen-ematea 10 eurokoa izango da bikote bakoitzeko eta sarituak ere izango dira,

«azkenera iristen diren lau bikoteentzat».

20:00etan, Jon Urzua aktoreak, *Bob? Nor da Bob?* bakarrizketa lana aurkeztuko du Artubi elkarte-ko erabilera antzeko lokalean. Jon Urzuzak idatzitakoa da antzerki hau, eta bertan tabernako filosofiaz ariko dira: «Egoera eta pertsonai guztiak asmatutakoak dira», diote Jon Urzua eta Jon Zubiaga aktoreek, bizitzarekin antzekotasunik aurkituz gero... doluminak gure partez». Galtzaundi euskara taldeak antolatu du helduentzako antzerki hau.

Ondoren mahaiaren inguruan bilduko dira, «afaldu eta nahiko gaztain jateko asmotan». Afariaren bukaeran Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsoariak alaituko digute giroa. «Ez da plan txarra egun hauetako eguraldiari aurre egiteko».



'Bob? nor da Bob?' helduen antzerkia iragartzeko kartela. HITZA



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan eta HITZAko Tolosa eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

Kultur Hamabostaldian deigarriena Harri Festa izango da aurten

Amezketak » Asteartean herritarren arteko solasaldia izango da, euskararen inguruan eta guztiak daude gonbidatuta.

ERREDAKZIOA

Azaroko giro hotzarekin batera Amezketan Kultur Hamabostaldia antolatuta dute. Asteartean hasi eta hilaren 14ra arte izango da, egunero zerbait izanik. Aurtengo ekitaldirik bereziena Harri Festa izango da, hilaren 9an, hain zuzen.

Egun honetan harriak izango dira protagonistak: tartean Altzoko, Amezketako eta Bizkaiko hiru lagun talde osatu dituzte, gizon proba egiteko. Han neurtuko dituzte indarrak. Horretaz gain, Aimar Irigoien harri-jasotzaile gaztearen saioa ere izango da Amez-

ketako hiru harri berezirekin: Albitzuri Haundi, Antzi eta Ugarterekin.

Ez da faltako joan den urtean herritarrek egindako antzerkia, Gazteen Egunaren baitan, alegia. Egun honetan kontzertuak ere ikusteko aukera izango da. Iaz ere Ugarten sardina-jatea izan zuten eta honen arrakasta ikusita, aurten berriz egitea erabaki dute amezketarrek (gaur zortzi).

Asteartean, euskarari buruz

Asteartean, euskararen inguruan herritarren arteko solasaldia izango da, eta noski, herritarren beharra izanik, guztiak daude gonbidatuta. Asteartean, 20:30ean izango da, balioanitzeko gelan.

Asteazkenean Joxe Mari Otermin herritarrekin herriko historiaz eta bitxikeriez ariko da. Hau ere 20:30ean izango da.



Joan den urtean antzerkia izan zen ekitaldirik arrakastatsuenetakoa. HITZA

» KULTUR HAMABOSTALDIA, EGUNEZ EGUN

Azaroak 4, asteartea

■ 20:30. Euskararen inguruan, herritarren arteko solasaldia. Nahi duen oro gonbidatuta dago.

Azaroak 5, asteazkena

■ 20:30. Joxe Mari Oterminek eskainitako hitzaldia balioanitzeko gelan: *Amezketako historiari buruzko zenbait argibide*.

Azaroak 6, osteguna

■ 18:00. Hitzaldia: *Ongi lo egiten ahalegindu, hobeto bizitzeko*. Balioanitzeko gelan.

Azaroak 7, Gazteen Eguna

■ 20:30. Zahagi-sagardoa (jatekoa bakoitzaren esku).

■ 22:30. Antzerkia.

■ 00:00. Kontzertuak.

Azaroak 8, larunbata

■ 19:00. Ugartereko Errosarioko Amaren elizan, Tolosako arimaz orkestrak eskainitako kontzertua.
■ 20:30. Sardina-jatea Ugartereko frontoian.

Azaroak 9: Harri Festa

■ 13:00 **etatik aurrera**. Plazan, barrenadoreak: Bizkaiko talde bat, beste Altzoko talde bat eta amezketarrek osatutako hirugaren bat, elkarren kontra lehiatuko dira.
-Aimar Irigoien harri-jasotzailea herriko 3 harri altxatzen ahalegin-

duko da: Albitzuri harria, Antzi harria eta Ugartere harria.

Azaroak 10, astelehena

■ 18:00. *Emozioak modu egokian nola bideratu* hitzaldia, balioanitzeko gelan.
■ 20:30. Buruntzuzinek eskainitako, Juntxo Agirre Mauleonen hitzaldia: *Aralarko gazteluak, arkeologiarenekin ikuspuntutik*.

Azaroak 11, San Martin eta haurren eguna

■ 11:00. Meza San Martinen.
■ Ondoren. Bertsolariak eta Lajarekin dantza egiteko aukera.
■ 13:30. Haurren bazkaria.
■ 14:00. Bazkaria Errekalden.

Gero, berriz Lajaren doinuak izango dira entzungai eta dantzagai.

■ 15:00. Kulkirekin, haurrentzako herri kirolak eta baserriko jolasak
■ Ondoren. Merienda goxoa.

Azaroak 12, asteazkena

■ 20:30. Hitzaldia: *Gerra Zibila* (Mikel Errazkin).

Azaroak 13, osteguna

■ 20:00. Angel Cuervo: *Hego-ameriketara mo toan, Cheren rutatik*.

Azaroak 14, musika eskolaren aldeko festak

■ 17:30. Musika eskolako ikasleen emanaldia.

Leire Olaberria Manchesterren Munduko Kopan ariko da egun hauetan

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria Manchesterren dago egun hauetan, pista txirrindularitzako Munduko Kopako lehenengo fasean aritzeko. Atzo iluntzean puntuazioan aritu zen.

Cespa-Euskadiko Leire Olaberria txirrindularia Espainiako selekzioarekin ariko da. Taldekako jazarpenean (3 kilometro) lehen aldiz ariko da Espainiako selekzioa eta Olaberria da pieza nagusia. Horrez gain, ikaztegiatarra puntuazioan eta scratch-en lehiatuko da. Datozen Olinpiar Jokoetarako baliagarria izango den proba hone-tan 65 emakume ariko dira.

Lau urteko kartzela zigorra Otaolari makil bat bota zionarentzat

ERREDAKZIOA

«Autoritatearen aurkako delitua» egotzita, lau urteko kartzela zigorra eta 1.800 euroko isuna ezarri diote Lizartzako alkatearen aurka makil bat bota zuen emakumeari.

Sententziaren arabera, gertaera hau pasa den irailaren 6an jazo zen, PPren alkatea mezatik irteten ari zela. Kanpoan ikurrinekin protestan ari zirenean 40 lagun inguru zituen zain eta horietako batek makil bat jaurti zion. Otaolak ez zuen kalterik jaso, makilak bekaina baino ez baitzuen ukitu.



«Euskal Herria ez dagoelako salgai»

TOLOSA » «EAJ Joxi eta Joxeanen omenaldiaren aurka kargaren, Gasteizen falangisten kontzentrazioan anti-faxisten aurkako kargaren, Hernanin Independentzia eguna ospatzeko garaiko kargaren eta beste

hainbat gertaeraren erantzule» dela esanez atzo herriko kaleetan manifestazioa egin zuten 100 gazte inguruk. Guztia salatzei atera ziren kalera. Arratsaldetan Batzokiaren aurrean kontzentrazioa egin zuten. n.u.

Txintxarri Eguneko bazkarirako txartelak salgai, hilaren 11ra arte

Alegia » Hilaren 16an izango da eta eguna, meza, Txintxarri Abesbatzaren eta Txintxarri Txikiren saioekin osatzen da.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Txintxarri eguna hilaren 16an ospatuko da. Txintxarri eguna Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen eguna da, abesbatzaren egun berezia bezala eta batik bat elkarreko bazkide direnei eskaintzen dena. Bazkaria izaten da eta berta-

ra joan nahi dutenentzat txartelak salgai daude 35 euroan Landa okindegian, Kafe Letamendia taberna eta Jubilatuen tabernan. Txartelak erosteko epea hilaren 11n amaituko da.

Egun horrek hiru ekitaldi izaten ditu: meza nagusia, Txintxarri abesbatzak abestua; Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen emanaldia, bereziki bazkideei eskaintzen zaiena, eta aipatutako bazkaria Txintxarri jatetxean.

Horregatik, «gonbidapena luzatzen diegu herritarrei, Txintxarri abesbatzako kide eta bazkideekin egun horretan gurekin izateko».

Okupazioaren Aldeko Eguna izango da gaur

Ibarra » Eskualdeko Gazte Asanbladak antolatu du; Okupazioaren Aldeko Mugimenduarentzat izango da bildutako dirua.

R. CALVO

Eskualdeko Gazte Asanbladak antolatutako Okupazioaren Aldeko Eguna izango da gaur Ibarrran.

Arratsaldean hasiko dira ekin-tza guztiak eta gauean, Gaztetxean, izango diren kontzertuetako sarrerakin bildutako dirua Okupazioaren Aldeko Mugimenduarentzat izango da.

Bilboko utzarzteak

Izan ere, Bilbon azken hilabeteetan gaztetxe ugari utzarazi dituzte, Olabeagarena izan zen azkena, eta

ondorioz dirua behar du Okupazioaren Aldeko Mugimendua, besteren artean, irtenarazteetan atxilotutako laguntzeko.

Kontzertuetarako sarrera 3 eurokoa izango da eta Gaztetxean bertan egongo den afarirako eta kontzertuetarako sarrera, berriz, 5 eurokoa izango da.

» EGITARUA

- **18:30.** Elkarretaratzea Ibarrrako Benito Izagirre kultur etxearen ondoan.
- **19:00.** Trikipotea plaza inguruan.
- **20:30.** Barrikotea Gaztetxean.
- **21:30.** Kontzertuak Gaztetxean: Aggressive Combat Last Strench Deficiencia Metal Talde sorpresa.

Belabieta kiroldegian jokatu du gaurko partida Ibarrrak

Areto-futbola » Tafatrans talde nafarraren aurka aruko da taldea 18:30ean; Cristian Davila da oraingoan baja bakarra.

ERREDAKZIOA

Gaur larunbata Santu guztien eguneko jai eguna izanda ere, Ibarrrak Belabieta kiroldegia irekiko dute Ibarrrako areto-futboleko Lauburu taldeak jokatzeko.

Nafarroako Tafatrans taldearen aurkako partida 18:30ean izango da eta oraingoan, azken lehiaketetan ez bezala, ia talde osoa ariko da. Gaurkoan baja bakarra Cristian Davila jokalarirena izango da, izan ere Davilak duen osasun arazo dela eta opeazio-gelatik pasako da datozen asteetan eta horrexegatik denboraldi osoan ezingo du partidarik jokatu.

Hiru garaipen

Oraingoan Txubel entrenatzaileak ia jokalar guztiak izango ditu zelaian, hortaz, eta elkarren segi-

dako hirugarren garaipena lortzen saiatuko dira. Lortuko balute sailkapeneko postu lasaietara egingo lukete salto ibartarrek.

Tafallako taldearen inguruan, hala eta guztiz ere, ez dute informazio askorik ibartarrek; aurreko denboraldian igotzea lortu zuten Nafarroako taldeko ekipoa da Tafatrans eta Lauburuk ez du ezagutzen ez euren jokatzeko modua, ezta jokalaririk ere.

Ibarrrako areto-futboleko taldeak, era berean, euren jarraitzaileak eta ikusleria, orokorrean, partidura joatera animatu nahi izan ditu ohar baten bidez, hartara jokalaririk animatu eta irabaztera bultzatu ahal izateko.

Gazteenek atsedendia dute

Ibarrrako areto-futboleko gazteen saileko taldeak, bere aldetik, jai izango dute asteburu honetan.

Gazteenek atsedendirik gabe entrenatzen ari dira hala ere, datorren astean Tolosako Escolapios taldearen aurkako partida baitute etxean, hau da, Belabieta kiroldegian.

@ Eztabaida. TOLOSALDEKO ETA

LEITZALDEKO HITZAREN webgunean hainbat eztabaida daude jarrita bertan parte hartzeko. Horietako bat ondorengoa da: «Tolosako Corazonistas eliza botatzea onartu du Udalak, bertan etxebizitzak egiteko. Zer iruditzen zaizu? Etxebizitza gehiago behar dira?». Utzi zure iritzia gure webgunean:

www.tolosaldeko-hitza.info

Idiazabal gaztarekin egindako postrea, ia prest

Lizartza » Ezeizak atzo birrindu zuen Ordizian erositako gazta; honekin egindako gazta-tartak dastatu ahal izango dira.

REBEKA CALVO

Casa Ezeizaren artisau-postreak egiteko osagairik onenak hautatzeko konpromisoari jarraiki, Nafarroako Eulate herriko Ricardo Remiro artzainaren gazta birrintzea burutu zuten atzo komunikabide, bezero eta agintari desberdinen aurrean.

Izan ere, Casa Ezeizak pasa den irailean Ordiziako Ardi Latxen Gaztaren XXXV. Lehiaketako gazta irabazlea eskuratu zuen enkantean, eta gazta erdi huraxe eta artzain beraren beste 11 kilo gazta birrindu zituzten atzo, horrekin Idiazabal gazta-tarten serie mugatua egiteko. Birrinketa lanetan etxeko i-g (ikerketa eta garapena) saileko arduraduna, Iñigo Murua sukaldaria, artzaina bera eta beste hainbat langile izan ziren.

Bildutako dirua Caritasentzat

Serie mugatu honen dastatzek ere eskainiko dituzte hainbat merkatal-gunetan, gainera; hilaren 29an Donostiako San Martinen egongo dira, abenduaren 12an Iruñeko Morean, 13an Getxoko Ar-

tean eta 20an, aldiz, Gasteizko Boulevarden. Horiek horrela, Casa Ezeizako sortzaile eta kideetako batek, Jon Ander Torreak, Idiazabal gazta-tartaren serie mugatua probatu nahi dutenek «norberak egokitzen josten duen dohainaren truke» jan ahal izango dutela esan zuen, jasotako dirua herrialde bakoitzeko Caritas erakundari emango dietelarik Eguberrietan.

Iñigo Murua sukaldaria, bere aldetik, gazta-tarta berria «tradiczioa eta modernitate» batuta egin dutela esan zuen. «Sagardotegi-tan tipikoa den postrea berritu dugu; postre tradizional honi beste egitura eman diogu», gaineratu zuen Muruak.

Osagai naturalak

Torreak Casa Ezeizak azkenaldian, «gozogintzako sektoreak bizi izan duen beherapena eta gero, postreak emandako gozamenaren berreskuratu» nahi izan dutela azpimarratu zuen. «Horren adibide da Nutrisak egindako ikerketan gainerako marka guztien gainetik Casa Ezeizako Teilak nabarmendu zituela osagai naturalak erabiltzeagatik eta kontserbagarri eta koloratzaile artifizialik erabiltzen ez delako».

Era berean, gozogintza etxeko kideak «berrikuntzaren» alde egindako apostuaren berri ere

eman zuen: «Bi alderdiri begira egiten ditugu berrikuntzak; alde batetik, teknikari begira, eta bestetik, zapoaren berrikuntzari begira. Gozogintzaren sektorea berritu nahi dugu».

Casa Ezeizaren azken apustuaren berri ere eman zuen Torreak: izoztea. «Izoztea da elikagaiak kontserbatzeko modurik naturalena. Postre edo tarta bat egitean, bere osagaien kalitatea kontserbatu eta gordetzeko modurik onena izoztea da. Horrela, produktuak proteina, bitamina, mineral eta abar guztiak bere horretan mantentzen ditu, eta kontsumitzailekoan kalitatea, egitura eta zapoaren egin berria erabat mantentzen dute, eta bestelako gehigarriak eranstea ekiditen da. Aurkezten dena izango da bezeroek dastatzeko hautemango dutena», gaineratu zuen, zentzu honetan.

Gogoratu behar da Casa Ezeizaren Lizartzako instalazioak urtariraren 17an inauguratu zituztela eta bertan ekoizpen-eremuaren eta biltegiaren 3.300 metro koadroko pabilioia dela. Lizartzako Irundubi poligonoan, gainera, beste 700 metro koadroko bulego-erakina ere badago.

Langilegoari begira, gozogintza etxe ezagunak 80 bat langile ditu eta data zehatzetan, Eguberrietan adibidez, 110 langile inguru izatera ere iristen dira.



Iñigo Murua, Jon Ander Torre eta Jose Ignacio Galagarr Casa Ezeizan aurkezpena egiten. R.CALVO

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza saltzen da Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Itresatuek deitu: 657 230 011 edo 634 919 482.

Leitzako Aurrera Pilota Eskolako haurrak nazkatu arte ariko dira jokoan



Nafar Jokoen lehen jardunaldian, Amazabalen bildutako pilotari gazteak. HITZA

Pilota » Asteburu honetan ere Nafar Jokoez gain, hainbat herritan txapelketak jokatuko dituzte pilotari gazteak.

ASIER IMAZ

Aurrera pilota eskolako haurrek partidak jokatuko dituzte azken astebuetan bezala. Alde batetik Nafar Jokoez aurkitzen dira, eta bestetik herri ezberdinetan jokatzen ari diren txapelketak. Ondoren jaialdi hauetan jokatuko diren partidak. Emaitza guztiak astear-teen argitaratuko ditugu.

Nafar Jokoa

Atzo hasi ziren 20:00etan Aurrerako pilotariak Nafar Jokoen barneko partidak jokatzen. Gaur eta bihar ere lehiak edukiko dituzte. Paleta Gomako neskek ere atzo jo-

katu zuten: Iera Agirre-Saioa Aristorena bikote leitzarrak Oberenako Urtasun-Ruizizan zituzten aerie. Esku pilotan atzo jokatutako beste partida Sagastibeltza Lasarte eta Anartz Olanok jokatuko zuten Amazabalen.

Leitzako pilotalekuan gaur lau partida jokatuko dituzte haurrek 10:00etatik aurrera. Lehen partidak etxeokoa Aimar Gil eta Mikel Eraso izango dira. Ondoren Onsalolo eta Eraso irtengo dira kantxara. Hirugarren partidak, Ander Garzariarena eta Markel Barriola arituko dira. Azken partidak Ibai Barberena eta Iñigo Mitxaus pilotariak jokatuko dute.

Nafar Jokoen barnean baina herritik kanpo, gaur ondorengo haurrak arituko dira: Lizarran Oier Igartua eta Iñaki Saralegi lehenik, ondoren Igartua eta Hernandorena. Uharteko Toki Alai pilotalekuan Ander Eskudero eta Jon Le-

zea egongo dira. Iruñeara hiru bikote joango dira euren partidak jokatuz. Oberenak, Sagastibeltza Egues eta Ibai Gil hasiko dira. Ondoren, Ander Alduntzin eta Beñat Altzelai irtengo dira eta azkenik, Joanes Illarregi-Joseba Eskudero.

Bihar Irurtzunen Aldaregi eta Jaunarenak jokatuko dute.

Beste txapelketak

Errioxako Txapelketan finalak jokatuko dira. Alebinetan Sagastibeltza Lasarte-Petit bikoteak Egiguren-Irribarriaren aurka jokatuko dute gaur 09:30ean. Ondoren, Arozena-Gonzalezek kadete mailako finala jokatuko dute.

Burlatako Txapelketan, bihar, Sagastibeltza Lasarte-Hernandorena eta Juanenea-Andueza bikotearen aurka lehiatuko dira.

Irurtzungo Txapelketan, Igartua eta Jon Jaunarenak jokatuko dute etzi 19:00etan.

Udalak urtean energia kontsumoa %1 jaisteko konpromisoa hartu du

Leitza » Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasun Planarekin bat egin du klima aldaketaren aurka.

A. IMAZ

Nafarroako Ingurumeneko Balaibideen Zentroa fundazioak «energia aurrezteko eta erabilera eraginkorra izateko» saiakera pilotuak sustatu ditu administrazio publikoei zuzenduta. Horien artean Leitzako Udala aurrizten da.

Leitzako Udala bere aldetik, «klima-aldaketaren aurka eragiteko ekintzekin» bat egin duela jakinarazi du, «energiaren egoera hobetzeko saioak bultzatuz Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasun Plan bat medio».

Energia aurrezteko plana

Leitzako Udala energia kontsumoa urtean %1 jaisteko konpromisoa hartu duela azaldu du «argia, gasa, gasoila... kontsumoaren adierazleak jarri dira. Urtero %1 jaitea da hartu dugun konpromisoa». Helburu hori lortzeko bi bide jarri ditu martxan Udala: batetik, Udalaren eraikinen azterketa energetiko orokorra egitea eta bestetik, zabaldu duen zirkularrean ematen diren aholkuak betetzea eskatu du.

Zirkularra edo aholkuak

Energiaren kudeaketa eraginkorra lortzeko, Udalaren diren eraikinetan tenperatura arrazionalizatuko dute; «tenperatura

proposena 20°C-koa da». Horrela, «berokuntza sistemari errendimendu handiena aterako diogu: piztuko dugu lanpostura iritsita-ko eta beharrezkoa ez denean, itzali».

Argia ere modu eraginkorrean erabiltzeko arginaturalari emango zaio garrantzia: «Ahal den guztietan argi artifiziala ez da erabiliko. Lana bukatutakoan argia itzali: pasabideak, komunak, lan postua... argia ez gastatu alferrik».

Azkenik, ekipo elektrikoak eta elektronikoak modu eraginkorrean erabiltzea eskatzen du Udala banatutako zirkularrak. Horretarako, hiru proposamen edo aholku aipatzen dira bertan: «Tresna elektrikoak beharrezkoak diren-ean soilik erabiliko dira. Ekipoak automatikoki deskonektatzeko programatu dira eta ekipoak itzali eta desentxufatuko dira ahal den guztietan».

Udala zuzendu den talde edo banakako hauek, zirkularra hiru toki agerian jarri beharko dute.

Banakako eta taldeko ekintzak bultzatuz

Leitzako Udala onartu berri dituen neurri hauek, bere eraikinetako erabiltzaileentzat baldin bada ere, aholkuak herritarrentzat ere zuzendu daitezke. «Klima-aldaketaren aurka neurri hauek» ingurumenaren eragina izateaz gain, ekonomikoki ere errentagarriak iritertzen dira. Beraz, «lagundu konpromisoa lortzen!», deialdia egin dute Udaleko ordezkariek.

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurrie

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

URTZ SARRA ELIZONDO

Hau esan nahi diogu bihotzeko Urtzi: joan zarela, baina ez gaituzula utzi



HAURTZARO IKASTOLAKO ikasle, guraso eta langileak

OIARTZUN
2008ko azararen 1a

URTZ SARRA ELIZONDO

Atzo hil zen, 13 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren -Goian bego-

Gurasoak Miren eta Txabir; anaia, Amets; aiton-amonak Lurdes eta Imanol; Maria eta Domingo; osaba-izebak Imanol eta Amaia, Xebas eta Jaxone; Itziar eta Ruben, Txomin eta Angela; lehengusuak eta gainerako ahaideak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren ator zaitzetele ASTELEHENAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN ESTEBAN parrokiaren egoitean den hiletara. Aldez aurretik, mila esker

Zuzenbidea: Txamurtza Elvea (Aristizabal sagardotegi), Iturriotz auzoa. OHARRA: Hilbela San Anton kaperan egongo da, 12:30ak arte.



OIARTZUN
2008ko azararen 1a

I. urteurrena KARMEN ETXEARRETA ARSUAGA



Urteetan zehar indarra eta maitasuna erakutsi eta eman dizkidazu, ama.

Beti gure artean izango zaituztet!

Itsaso



AZPEITIA
2008ko azararen 1a

IÑAKI ARRUE SEGUOLA



Urak dakarrena urak daroa Zuk emandakoa gurekin geldituko da

Hartu Arte taldea



AZPEITIA
2008ko azararen 1a

IÑAKI ARRUE SEGUOLA



Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

Amaneren lankide lagunak, Maialen, Ander eta Pedro.



AZPEITIA
2008ko azararen 1a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketa Leidor Antzokian 11:00etan haur abesbatzak (Txekia, Katalunia, Leioa, Errusia), 16:00etan polifonia eta folklore (Alemania, Euskal Herria eta Letonia); 20:00etan kontzertu berezia (Mikrokosmos-Frantzia), 22:00etan Udalaren Harrera Ofiziala.

Deialdiak

■ **Alegia.** Azaroaren 23an Bigarren Eskuko Azoka izango da lehenengo aldiz, Joseba Llamas apaiz alegiarak lan egiten duen Ipar Potosin (Bolivia) nekazal eskolaren alde. Arropak, liburuak, diskoak edota jostailuak ari dira jasotzen.
■ **Tolosa.** Palestinako eta beste erregio batzuetako bideo musikalak Otsabi San Blaspioko lokalean.
■ **Tolosa.** Azaroko zinema bonu salmenta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
■ **Tolosa.** Azaroaren 8an izango da Engomadora Modernako langile ohien bazkaria izango da Fronton jatetxean. Informazioa eta erreserbak 943 117 010 eta 943 674 669 telefono zenbakietan.
■ **Tolosa.** Osasun eta Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten herriko talde eta elkarteentzako

diru laguntza deialdia. Informazioa, udaletxean eta www.tolosaldeko hitza.net.

Kultur Hamabostaldia

■ **Oresa.** 21:00etan herri afaria eta ondoren Txutxin Ibañez eta bere taldea egongo dira eta D.J Bull izango da goizaldera arte, Kultur Hamabostaldiaren baitan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Vanessa Alzateren pintura, eskultura, grabatu eta collageak ikusgai Aranburu Jauregian.
■ **Alegia.** Encarna Megia alegiararen margolanak ikusgai urri osoan zehar, asteartetik igandera bitarte, jubilatuen tabernan.

Irteerak

■ **Asteasu.** Irteera kulturala egingo dute Ekainberrira bisita eginez azaroaren 5ean, asteazkenean, 15:30ean abiatuta. Argibideak jasotzeko eta izena emateko Asteasu Kultur Etxera jo daiteke edo 943 69 68 96 telefono zenbakira deitu.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbida, 2. 943 654 610.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Txintxo portatu bestela...
Zorionak guztion partetik.



Urte askoan!

Tomas Arostegi (Bidania).
Gaur 90 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.



Erosi berriak

Zuretzat edo nahi duzunari
oparitzeko!

SOLAGÜEN 2004. urteko
ardo ONDUA



12 botilako kutxa
72 €

REMELLURI 2004. urteko
ERRESERBAKO ardo



3 botilako kutxa 40 €
6 botilako kutxa 80 €

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Lotea 29 €

Tolosako Xaxuak
Txakolin txokolatea
Jogurt turroia
masusta gorriarekin
Aktikoa eta mertxika
turroia



Mandarina turroia
boilur zuriarekin
Txokolate turroia
almendrek
Mertxika turroia
txokolatearekin
Jogurt turroia
masusta gorriarekin



Turroi dastaketa
19,50 €

Alfar
OLIBA OLIO BIRJINA ESTR

6 botilako kutxa
(75 cl)
36 €



Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura:
Zure etxera • Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira...

Eskatera epea:
azaroaren 30a arte

Eskera egiteko:
943-30 43 45
Bidalketa gasturik gabe

